

Ardilarruaren azpian

HASIER ETXEBERRIA



ZAHARRA berri gertatzea baino gauza penagariagorik ez dago munduan, batez ere itxaropenaren leiho txikiaren aurrean betiko harrisi zantarra ezartzera

badator.

Belloch Justizia Ministro berri izendatu zutenen Madrilen, esperantza emetzen hasi zen zenbaiten bihotzetan. Atzeak erakusten duela eta aurrea nola dantzatu, batek baino gehiago sinestua genuen halako karrera aurrerakioa egindako epaile honek, handik edo hemendik irtenbide logikoren bat ioparuko ziola *Cuestión Vasca* deitutakoari.

Baina usteak, beste behin ere, ustel. Barne saila eta Justizia ministeritza bat egitea onartu zuen Bellochek. Poliziak eta epaileak, berez aparteko dialektika batean beharrik luketen bi botere, bere mende hartu ditu Superministroak eta zalantzarik gera ez dadin, elkarrizketa bide oro debekatu ditu. Ez Elkari eta ez ezer. Ez dago elkarrizketarik eta kiito.

Zaharra berri eta Onandia isilik. Mirariak egiteko gugan piztu zuen fede apurra, lotsagarri bilakatu zaigu orain. Matrailak gorritzen zaizkigu, beste behin ere, gezurra esan eta tontoak bezala sinestu geniolako. Elkarrizketa aldarrikatzen zuen Mariok, Elkarrekin eta norahirekin. Bide guztiak ziren egokia Euskal Herria bakebidetarako. Mario txorimalo gertatu da santu orde: errepresibioa baizik ez du airtortu bere alderdiko ministroak.

Bitartean HBko Mahai Nazionalakoak, bonbaren atzeko etiketari begira, ona ala txarra den erabakitzeke. Ederra metodoa. Lagunek jarritakoa bada, ondo, bestela, gaizki.

Haseran esandakoa: zaharra, berri.

Lotsa

TXILLARDEGI



ATZO Mati Hint estoniar parlamentari eta Unibertsitateko irakaslea den adiskidearengandik jaso nuen eskutitza.

Eta, lehenengo mementuan, poztu egin nintzen. Baina seguituan, kartazalaren barruan zetorrena irakurtzean, lotsatu egin nintzen erabat.

UPV delakoa (nik lanegiten dudun Unibertsitate ofizialak, beraz) bidali dizkion gauzak bidali dizkit Hint-ek.

Kartazala bera hasteko: «Servicio Editorial/Argitarapen Zerbitzua: Apio. 1397 - Leioa (Vizcaya)» (sic; «con uve y ce», erdaldunek dioten bezala).

Nori bidalia? Ikus: ...«SU-200026 Tallinn - Rusia»...

Nire lagunak ez du iruzkinik egiten. Jakina. Baina «Españak 1991an Estoniaren Independentzia aintzakotzat hartu zuela» gogorarazten dit. Ziri mingotsa, benetan.

Bidali dioten katalogoa ere bidali dit: «Novedades Abril 1994», paper berdetan inprimatua. Den-dena, osoki, goitik behera, gaztelania hutsez dator. Baita «Datos del suscriptor» atala. Oriaren behealdean, hau: «Servicio Editorial - Universidad del País Vasco».

Irudi ederra UPVak kanpoaldean uzten duena! Estonia Errusiako partezat hartu, eta Euskal Herria Cantabria Oriental besterik ez dela adierazi.

Baina, lasai egon: Koldo Gorostiaga, Joserra Etxebarria, Zalakain, eta gamerako irakasle euskaldunak, UPVtik botatzeko bidea aurkitu dute. Baina «Servicio Editorial-eko» buruzagiari ez zaio ezer gertatuko. Aste honetanxe izan baitugu beste frogat bat: UPVko Gizarte Kontseiluko Lehendakari izendatu berria den Pedro Larreak ez daki euskaraz. Deustuko ikasle izanik, 37 boto bildu ditu «Legebiltzarrean». Horrela Markiegi eta Buesa ez dira bakarrik sendituko.

Lotsa? Horixe!

ABC

Inkiszioa berriz ere

Argi dagoela ematen du alderdi politikoek ez badute «*mea culpa*» egiten eta ez badira ados jartzen Zuzenbidezko Estatu berrosatzeko, *pitxer* konstituzional delikatu mila puskatan hautsi egingo dela. Intelektual serioak, jadanik azpimarratzen ari dira ezinbestekoa dela Espainian sistema berria izatea. Baina oraindik ere badago denbora hirurogeita hamarrekotartean halako eskuzabaltasunez eta hainbeste ilusioz sortu zena salbatzeko. Beharrezkoa da korruptioaren txingarrak orainxe bertan amaitzea, fruitu zindoa berehala zimeltzen baita ez bada ustelberatik garazi bereizten. (...) PSOEko Gobernuak, beraz, uko egin behar die diktaduraren metodoei; gizar-teak neurritasuna berreskuratu behar du eta moderazioa berantolatatu.

LUIS MARIA ANSON

HEMEROTEKA

Le maintien en détention de M. Pineau-Valencienne



Pineau-Valencienne jauna atxilotuta mantentzea

Didier! Emaiguzu Europako hauteskunderetan zure orde aritzeko ahala!

PLANTU / LE MONDE

EL CORREO ESPAÑOL

Euskadi European

Euskadiren identitate nazionala eta kanpo proiektzioa Espainiako nazioarteko politika azkarrak lagundu eta kapitalizatu beharrik litzake nire ustez eta, horrekin aldi berean, Estatuan European —gaur egungo eta aurrerik datekeen etorkizuneko bakarrean— euskal identitatearen eta interesen defentsa efikaza eta egokia Espainiako kanpo jardunbideari lotua baino ez da bideragarri izango.

Oso ondo dago behin eta berriro azpimarratzea mugak behin betirako kendu behar direla. Europako herrien arteko komunikazioa mugatzen dutelakoan. (...) Baina herri desberdinen artean gure herrien interesak defenditzeko orduan, lehenatasuneko da Gasteizen eta Madrilen arteko lankidetzak.

MIGUEL HERRERO DE MIÑÓN

ZUZENDARIARI

Leku aldaketak eta Euskal Filologia

Euskal Filologiadun maisu maistrok aspaldidanik ari gara aldarrikatzen geuri, eta baita euskara berari ere, dagozkigun eskubideak.

Utergaitza badiruz ere, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak urrats ez, lege, dekretu, aginduz... diplomaturan zein lizentziaturan, Euskal Filologia adarra baliogabeteke bere legegida erabili du. Hau ulertzeko hurrengo apimane hauek ikustea baino ez dago:

Edozein irakasle, erdalun zein euskaldun, nahiz eta bere espezialitatea Euskal Filologia ez izan, Bigarren Hizkuntza Eskakizuna izanik (lehenagoko EGA, IGA... agiriak), Euskal Filologiako plaza har dezake. Beraz, pedagogi, zientzi, gizar-te... espezialitatea gehi 2.H.E. agiria duenak Euskal Filologiari dagoekin plaza bete dezake, alderantziz gertatzen ez delarik.

Nola justifikatu daitezke Hizkuntza Eskakizunak espezialitatea ordezkatea, bere izena hartzea eta espezialitateak berezkoa duen esparrua ukatea? Ate gehiago,

agindu berean lanpostu bakoitza zehazteko eta beraz, lanpostuaz jabetzeko, bi baldintza, espezialitatea eta Hizkuntza Eskakizuna bete behar direla azaltzen denean.

Aipatutako dekretu edo aginduen emaitza egin diren leku aldaketetan gauzatzen ari da: Euskal Filologiako plazak, beste espezialitateak beteko dituzte

Egoera honen aurrean, zera adierazten dugu:

Hurrengo leku-aldaketetan, aurrean eman diren plazak berrikustea eta Euskal Filologia espezialitatea duen edo epe baten barruan izango duen jendearekin betetzea.

— Ez dugu onartzen inongo Hizkuntza Agiriaren baliogabetasunik Euskal Filologia titularekiko.

— Euskal Filologia espezialitatea Euskal Filologia lanpostua betetzeko egokitzen duen titulu bakarra da.

— Aurrekoaren ondorioz, Euskal Filologia espezialitateak beste espezialitate guztiak duen tratamendu bera izatea exigitzen dugu.

EUSKAL FILOLOGIA TALDEA

Bilbo

Pintadei erantzuna

Urnietako Jarraiako kideak, txunditurik gelditu ginen, asteazken goizean jaso genuen berri zoragariaren ondorioz, Urnietako polikroidegian Jarrak izenpetutako pintada batzu azaldu bait ziren. Izan ere gure ustetan, herri eder honetan, Jarrak eskutitz hau bidali dugunok bakarrik osatzen gennuelakoan geunden.

Baina hau ez da okerrera, okerrera pintada horiek gureak ez direla eta Jarraren izenean daudela da; azpimarratu behar dugularik, Jarrak egin dituen pintadak askoz kategori hobegaituak dira, konpromezu politikoagatik, ideologiarik, estetikaik... Honen ondorioz pintada horien egile pailazo-demokratiko-faxista horiei gomendatzen diegu ikastaroren batera apuntatu daitezela.

Seriotasunari eutsiz, ez da zaila 'pintadaxo' horiekin beraien egileak tortu nahi duen bakarra, Urnietan orain gutxi sortu den Jarraren izena zinkitzea dutela helburu.

Bukatzeko jakin dezatela gure lanarekin aurrera jarraituko dugula, eta izan ere gure jeloak dioten bezala: ... ta segi aurrera.

URNIETAKO JARRAI

GAIA JARRITA



Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Logaritmoen taula, erimen otzara, errege godo eta doinuen ilada, rosa-rosa, gara, gaba, laga, traba: 6 + 7 x 4 zenbat hotzikara! Urruñako azterketa gogoregia da.

JON MIKEL OMAGOJEASKOA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordinatu: SS 800/90

	OJDI IKUSKATUTAKO HEDAPENA
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:	MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorial-eko Zuzendaria:	JOAN MARI TORRELAIDAI
Kontseilari Ordezkarria:	ISAKI URUA
Gereotse:	FERRIN LAZKANO
Zuzendaria:	MARTXEL OIAMENDI
Zuzendariordea:	LUZIAN ETXEHARRERA
Publizitate:	MARI JOSI SARASA

HELBIDEAK
 Erredakzio eta Tailerra: ANTZINA S.A. Industrialean 01-02 Pabliko / 20100 Lasarte. Ordu: 37 (845) / Fax: 36 84 95
 Egokite soziala, Publizitate eta Administrazio: Antz. Jakina, 10-1 / 28010 Dossona. Ordu: 46 80 22 / Fax: 45 50 87
 Araba: San Antono, 70 / Oteiza (0108) Gasteiz / Ordu: 21 86 72 / Fax: 21 88 73
 Nafarroa: Iratxe Alondegia, 45 / 15. esk. (Irteerik dutean) / 31011 Iruñea / Ordu: 47 80 78 76 / Fax: 47 80 75
 Bizkaia: Zabalburu Espartakua, 3 / 1. lekura / 48001 Bilbo / Ordu: 410 40 46 / Fax: 410 47 15
 Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pamecau 14, 11 500 Posa / Lantzina, / 64100 Baiona / Ordu: 50 50 35 75 / Fax: 50 25 75 11